


# Igeriketa eskola JUDIZMENDI IK (2024ko uda)

## AURRETIKO IZEN-EMATE eta ZOZKETA sistema

**Zozketa: Mai/22 – 17:00 h**

### NOLA AURREZ IZENA EMAN

**Ezinbestekoa da Estadio Vital Fundazioa abonatu gisa alta izatea**

Familia guztiek 6 hilabete betetzen dutenetik aurrera egin beharko diete alta haurrei udako igeriketa eskolako zozketan parte hartu ahal izateko.

**Izena eman baino lehen, ziurtatu zein den ikaslearen kategoria**

Izena eman aurretik, kontsultatu Judizmendi IKren webgunean udako ikastaroetan izena eman nahi duzun txikiaren kategoria:

- Matroigeriketa (6 hilabete- 2 urte - adin hori daukaten edo txanda trinkoan beteko duten udako ikastarokideek)
- Txikiak 2/3 urte (adin hori daukaten edo txanda trinkoan beteko duten udako ikastarokideek)
- Txikiak 4 urte (adin hori daukaten edo txanda trinkoan beteko duten udako ikastarokideek)
- Kimuak (1., 2., 3. eta 4. Maialak) – Loinak (5., 6. eta 7. Maila) – 8. Maila

**Noiz?**

Mai/8tik Mai/17ra

**Nola?**

Deskargatu Judizmendi IK-ko Resasports App-a ematen dizkizugun hiru aukeretako batekin

**Erabiltzaile eta pasahitza**

Zure erabiltzailea eta pasahitza ez badakizu, eska itzazu escuela@cnjudizmendi.com helbidera.
Behin sartuta, interesa duzun talde guztietan aurrez izena eman ahal izango duzu.
Aurretiko izen-emateak ez du esan nahi plaza bat erreserbatuta duzunik.

Kontuan izan behin epea itxita ezingo dugula ezer egin ikastaroa beteta badago: baduzu itxaron-zerrendan izena emateko aukera.

Edozein kontsulta egiteko, jar zaitez harremanetan 945 130 223 telefonoan (Al-etik Or-era 17:30etik 19:30era) edo escuela@cnjudizmendi.com,

**Ordaintzeko modua**

Ikastaro bakoitza ordaintzeko emaila iritsiko zaizu eta ordainketa eginez izen-ematea baieztatuko duzue. Ikastaroa osorik ordaindu behar da plaza erreserbatu ahal izateko. Ordainketak gure TPV birtualaren bidez egingo dira, zordunketa/kreditu txartelak erabiliz. Ordainketa behin eginda, inskripzioa baieztatuko da.




# Igeriketa eskola JUDIZMENDI IK (2024ko uda)

**Adi: ordaintzeko 24 orduko epea**

## Deuseztatzeko epea

Judizmendi Igeriketa Klubak (Igeriketa Eskola) beretzat gordetzen du edozein txanda ezeztatzeko edo aldatzeko eskubidea, inskripzio nahikorik ez badago, 2024ko ekainaren 18an baino lehenago jakinaraziko baitu. Deuseztatutako inskripzioengatik jasotako ordainketak guztiz itzuliko dira, konpentsatzeko inolako aukerarik gabe.

**Bajak**

Inskripzioa egin ondoren iritzia aldatu eta ezeztatu nahi bada, idatziz jakinarazi behar da escuela@cnjudizmendi.com helbidera mezu bat bidaliz: guk ahalik eta azkarren erantzungo dizugu.

Ez da onartuko deuseztatzeko bestelako jakinarazpenik. Helbide elektroniko horretan inskripzioaren datu guztiak jaso behar dira, honako hauek barne: *ikastaroaren izena, ikaslearen izen-abizenak eta harremanetarako datuak.*

**Itzulketak:**

- Ikastaroa hasi baino 10 egun natural lehenago jasotako deuzeztapenetan ordaindutako zenbatekoaren % 100 itzuliko da, 6 € kenduz (izena emateko gastuak).
- 10 egun natural baino gutxiagoko aurrerapena duten deuseztapenek ez dute inolako itzulketarako eskubiderik izango.
- Itzulketak deuseztatzeko eskaera egin eta 15 egun naturalen epean egingo dira, ordainketa egin zen bide beretik.

## Kontua sortu

1. aukera




# Igeriketa eskola JUDIZMENDI IK (2024ko uda)

2.
aukera

Judizmendi Igeriketa Klubak (Igeriketa Eskola) kredentzialak bidaliko dizkizu posta elektronikoz. Jaso ezean, jar zaitezke harremanetan 945 130 223 telefonoan edo zure bulegora bertaratuta As-tik Os-ra 17:30etik 19:30era.



- Resasports app-ra sartu eta zure pasahitzak sartu: Resasports-ean kontua sortzeko abisua jasoko duzu



- App-ren eta Judizmendi Igeriketa Klubaren (Igeriketa Eskola) terminoak eta baldintzak onartu. Segurtasun handiagoa izateko, aldatu ehenetsitako pasahitza.

- Zure kontuan sar zaitezke dagoeneko:




CLICK

Taldea aukeratu

Talde bakoitzean ikastaroaren egunak, orduak eta data zehaztuta dituzu, azken datatik lehenengo datara ordenatuta baitago: ikastaroa aukeratu eta zozketarako izena eman. Zure erreserbetan begiratu ahalko duzu.




# Igeriketa eskola JUDIZMENDI IK (2024ko uda)

3. aukera



- Resasports app-ra sartu, kontua sortu sakatu eta eskatutako datuak bete
- Zure korreo elektronikoa balioztatu bidali dizugun emailetik



- App-ra sartu eta bilatu Club Natación Judizmendi



- App-ren eta Judizmendi Igeriketa Klubaren (Igeriketa Eskola) terminoak eta baldintzat onartu
- Zure kontuan sar zaitezke dagoeneko:




Taldea aukeratu

Talde bakoitzean ikastaroaren egunak, orduak eta data zehaztuta dituzu, azken datatik lehenengo datara ordenatuta baitago: ikastaroa aukeratu eta zozketarako izena eman. Zure erreserbetan begiratu ahalko duzu.